

Aretxagazeta

Aretxabaleta • 1996ko abenduak 5 • 111.zka. •



Urkuluko urtegia

“UDAk 50 urte” liburua

Asier Guenetxeak txirindularitza utzi

Txerria hiltzeko sasoia

Neguko
aurrezpen-bildumaren
aurkezpena



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA



GARAGE NORTE S.L.

Zerbitzu Ofiziala

Basabe Poligonoa, A-1-3

Tfnoak: 79 62 65 / 79 20 86

ARETXABALETA



Gripea pasatu duzu?


Maria Corral
(Langile) *(Langile)*

Ez, aurten oraindik ez. Gripea hartu ezkerotxean sendatzen ahalegintzen naiz eta azken erremedio moduan medikuarengana joaten naiz. Etxean ez tula kentzeko kipu-la jartzen dut.




Francisco Barruetabeña
(Jubilatua) *(Jubilatua)*

Aspaldiko urteetan ez dut griperik izan eta bakunatu ere ez naiz egin. Mantzanila limoi eta eztiarekin hartu izan dut gripea izanez gero. Baina normalean ez naiz mendikuarengana joaten.



Jesus Mulas
(Ikaslea eta langilea) *(Ikaslea eta langilea)*

Ez, ez dut pasatu. Normalean ur hotza edaten dut gripea pasatzeko baita ezta esnearekin ere. Egun batzuk etxean pasatu eta pasatzen zait normalean.



M^a de los Angeles de la Torre
(Etxekoandrea) *(Etxekoandrea)*

Ez. Gripea harrapatu ezkerotxe medikuak esandakoa egiten dut, normalean antibiotikoren bat hartzen dut. Etxean, limoi zuku beroa eztiarekin hartu izan dut.



Gipuzkoako
Foru Aldundiak
diruz lagundutako
aldizkaria



Kultur sailak
diruz
lagundutako
aldizkaria



Aretxabaletako
Udalak diruz
lagundutako
aldizkaria



ESKUTITZAK

ARETXABALETA-URKULU

Aretxagazeta aldizkariaren bitartez Aretxabaletako udaletxeko trafiko ardura-dunengana zuzentzen naiz, Aretxabaletatik Urkulura bidean dauden trafiko ikurrak ez baitira nahikoak. Herrira etortzen diren kanpotar askok Otalora Jauregia, Urkuluko urtegia, Matikua jatetxeagatik... galdetu izan didate.

Azbe lantegiaren pareko errotondako bide seinalizazioak eta Basabe baserrira iritsi aurrekoak ondo daudela uste dut. Baina barianteko bidegurutzera iristean gidari askok Gasteizerako bidea hartzen du. Bidegurutze hori hobeto seinalizatuta egon beharko litzateke. Honez gain, Lariño, Urkulu eta beste auzoetako seinalizazioak ere ipini beharko liriateke.

Guztion onerako eta bereziki gure herrira etortzen diren kanpotarrek ingurune polit hau ezagutzeko arazorik izan ez dezaten, seinalizazio arazoak konpontzea espero dut.

Joseba Lasagabaster

Argitaratzailea: Aretxagazeta Elkarte, Kultur etxea, Aretxabaleta. Tfnoa: 79 01 05, 151 postakutxatila. **Zuzendaria:** Josu Urkia.
Erredakzio-konseilua: Imanol Aginagalde, Miren Eraña, Arantzazu Abasolo, Ines Gartzia, Arantxa Eguren, Naiara Arrese, Unai Loidi, Ana Eriz.
Publizitate eta erredakzio arduraduna: Iratxe Bengoa. **Kolaboratzaileak:** Loramendi K.E., Udala, Mikel Arroiabe, M.J. Aretxaga, Gorka Etxabe, Andoni Arana, Jennifer Nelson, Amaia Murgiondo, Amagoia Lasagabaster, Joseba Lopez de Armentia. **Inprimategia:** Eguzkigraf. **Tirada:** 2.500 ale.
Aretxagazeta paper birziklatuan egiten da. **Lege gordailua:** SS378 / 94. **ISSN:** 1134-2609
Aretxagazeta ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.

Aretxagazeta



Iñurrategi anaien proiektzioa arrakastatsua

Murrukixo Mendi Elkar-teak antolatutako mendi astea Iñurrategi anaien Kangchenjunga eta Shisha Pangmako proiektzioarekin bukatu zen pasatu den domekan. Lagun asko hurbildu zen proiektzioa ikustera eta Zaraia zinema aspaldiko partez bete egin zen. Proiektzioa hasi baino ordu-bete lehenago Murrukixo Mendi Elkar-teak lokal itxura berritua inauguratu zuen.

Atzeratuen aldeko jaialdia

Aurten ere Atzeratuen aldeko jaialdiak ez du hutsik egingo. Ekintza berezi batekin ospatu gura izan dute jaialdia eta horretarako "El florido pensil" antzerkia aukeratu dute. Abenduaren 7an, gaueko 10etan izango da Zaraia zineman. Sarrera 1000 pezetakoa da.



Ludotekak jostailu erakusketa antolatu du

Ze jostailu erosi umeei?

Gabonak direla eta gurasoek hainbat buruhauste izaten dute umeei zein jostailu erosi erabakitzen. Jostailuen merkaturako gero eta zabalagoa da, eta joslailu moten eskaintza ere gero eta haundiagoa.

Erakusketa 5 arlo desberdinetan egongo da antolatuta, lantzen dituzten trebetasunaren arabera. Jostailu bakoitzak bere fitxa teknikoa izango du: zein materialez eginda dagoen, zein adinetarako den aproposa, bakarka edo taldeka jolasteko den eta haurrak zein trebetasun lantzen duen azalduko du.

Erakusketa, abenduaren 4tik 7era bitartean egongo da ikusgai. Abenduaren 4 eta 5ean, 4,30etatik 6,30etara bitartean eta abenduaren 6 eta 7an 12etatik ordu 2etara.

Kontzertu bikaina Oskorrirera

Beinke elkartearen 10. urteurrena eta Oskorriren 25.ena ospatu ziren aurreko zapatuan Oskorrik eskaini zuen kontzertuan. Aretxabaletako kiroletxea lagunez bete zen, eta antolatzaileak gustora gelditu ziren jendeak emandako erantzunarekin. Jaialdia bikaina izan zen. Tartean Kukubiltxo taldeak antzerki ikusgarri, bitxi eta politik eskaini zituen.

Galartza auzoan Santa Luciak

Abenduaren 14 eta 15ean Santa Lucia jaiak ospatuko dituzte Galartza auzoan. Zapatuan, arratsaldeko 5etan etxaflero jaurtiketa kanpai jotzea eta meza. 9etan herri afaria auzoko elkartearen soinu alaiturik. Domekan, 12,30etan, meza nagusian Galartzako abesbatzak parte hartuko du. Ondoren, 1,15etan Luntx-a auzoko elkartearen trikitilariak alaituta.

TABERNA

ARLUTZ

MITARTE, 16 • ARETXABAETA • TFNOA.: 79 32 34

K.O.O.P. E. S.COOP.

EGUZKIGRAF

inprimategia

Industrialdea F-0-4
Tfnoa: 791844
Faxa: 792941

ARETXABAETA

BEIRALAN

KRISTALDEGIA

Loramendi 10 ☎ 79 81 78
Aretxabaleta

GARBITU S. KOOP

Garbiketa orokorrak

Errekararren 3- Behea
Tfnoa: 79 01 28

IMANOL JANARI DENDA

Harategia
Bereziki Urdaitegia
Fruitategia

Gorbea Kalea ☎ 79 05 83 ARETXABAETA

Hiru metro igo da ura Urkulun

❑ Metro eta erdi falta zaio gainezka egiteko

Azken asteotan euria gogor egin du eta ondorioz Urkuluko urtegiako urak hiru metroko igoera izan du. Gipuzkoako ur kontsoltzioak emandako datuen arabera, abenduaren 2an bere kapazitatearen % 88an zegoen, iazko urtean berriz, %48an.

Azaroaren 15etik aurrera euria gogor bota du eta tarte honetan

urtegiak %19ko igoera izan du.

Egun euritsuenak kontutan hartuz, azaroaren 17an, 29,3 litro bota zituen Urkulun, azaroaren 19an, 25, 4 litro eta azaroaren 25ean 27,9 litro. Guztira, azaroaren 15etik aurrera botatako euri kantitatea 220 litrokoa izan da. Urtean zehar Urkulun 1.200 litroko media bota-

tzen du. Azaroko media 117koa da eta ikusi daitekeenez azken 15 egunetan kantitate honen ia bikoitza bota du.

Oraindik neguan ez gara sartu eta urtegiari metro eta erdi bakarrik gelditzen zaio gainez egiteko. Martxa honetan laster beteko da Urkuluko urtegia.

Abenduaren 2an bere kapazitatearen %88an zegoen Urkuluko urtegia



ERREKABARREN MEREKATAL ZENTRUA

- JUANTXO URDAITEGIA 79 75 42
- MARI KARMEN OINETAKO DENDA 79 59 85
- IRUDI ILEAPAINDEGIA 79 80 90
- MIREIA ARRAINDEGIA 79 31 59
- ARAMAIO OKINDEGIA 79 64 87
- LEINTZ-ROSI 79 78 63
- ERREKABARREN FRUITATEGIA 79 96 43

JOSU HARATEGIA

Urdaitegia-Gozotegia
Kroasantegia
"Janari prestatuak"

Mitarte, 1 ☎ 77 03 08
ARETXABALETA



FELIX
PAGALDAY

Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak
Mitarte, 7 behea ☎ 77 00 33
Etxekoa: 79 42 56

BP Amaia-Berri, S.L.

Gasa- Klimatizazioa-Isurkor Teknologia

Otalora, 18 behea
Tfno-Faxa: 77 06 49 ARETXABALETA

“UDAK 50 urte” liburua gertu

□ Abenduaren 15ean UDAko 50. urteurreneko ekitaldi nagusia egingo da Zاراia zineman, bertan, “UDAK 50 urte” liburuaren aurkezpena egingo da eta honekin batera insignia eta oroigarrien

Urtarrilaren 15ean UDAko 50. urteurreneko ekitaldi nagusia egingo da Zاراia zineman. Bertan beste ekintza batzuen artean UDAko 50 urte hauetako historia kontatzen duen liburuaren aurkezpena egingo da.

200 orrialde eta 150 argazkitik gora dituen liburu hau egitea ez da kasualitate hutsa izan. Bi urtetako lana eta sei lagunen borondatezko lana beharrezkoak izan dira horretarako.

Jokin eta Jon Antxia, Agurtzane Elkoro, Gotzone Guemes, Goretti Ayastuy eta Ana Esther Gomez ditugu liburuaren egileak.



Goretti Ayastuy, Gotzone Guemes, Ana Esther Gomez, Agurtzane Elkoro, Jon eta Jokin Antxia dira liburuaren egileak

• **Nola sortu zitzaizuen liburuaren egitearen ideia?**

Orain 2 urte sortu zen ideia, UDAko 50. urteurrena gerturatzen ari zela eta liburu bat ateratzea polita izango zela pentsatu genuen eta ordutik hasi ginen lanean. Aretxagazetan lanean ibilita ezagutzen genuen elkar.

• **Zein izan zen eman beharreko lehen pausoa?**

UDAKo artxiboa hankaz gora zegoen eta hau ordenatzea izan zen lehenengo lana. Ana Esther arduratu zen artxiboa ordenatzeaz. Ondoren gain begirada bat eman genion artxiboari, eskuartean geneukana zer zen ikusteko. Horrela poliki-poliki datuak eta informazioa ateratzen

hasi ginen, hau idatzi eta ordenadorean sartzen.

• **Zein izan da bakoitzaren lana?**

Esandako moduan Ana Esther artxibo lanaz arduratu zen. Jon eta Goretiren lana testua euskeratzea eta zuzentzea izan da. Agurtzane eta Gotzone maketazioaz arduratu dira eta Jokin informazioa batzeaz, kontrastatzeaz eta idazteaz. Bakoitzak bere zeregina izan du.

• **Zer ikusteko aukera izango dugu liburuan?**

Liburuaren lehenengo 40 orrialdetan UDAko 50 urte hauetako barne funtzionamendua kontatzen da, zenbat lehendakari egon diren, hauen argazkiak... Ondorengo beste

40 orrialde futbolari eskaini dizkiogu. Honen ostean, txirrintularitza, mendia, pelota eta atletismoaren sailak datoz, nahiko zabal kontatzen da bakoitza. Azkenik saskibaloitari eta eskubaloitari ere eman diogu tartetxo bat.

• **Zein ezaugarri ditu liburuak?**

Liburuaren euskaraz idatzita dago, Aretxabaletako hizkeran, Aretxabaletako idazkera liburuxoan oinarritu gara horretarako.

Testua eta argazkiak tartekatzen saiatu gara, oreka bat bilatu dugu eta uste dugu jendeak gustora irakurriko duela.


• **Liburu bat egitearena esperientzia berria izango zen.**

Bai, guretzat ere erronka

ZARAIA TABERNA

Goizeko 5,30etatik zure zerbitzuan

MANTEKA ANAIK



MENDIOLA ERRETEGIA

Bazkari eta afariak

Astehenetan itxita

Tfnoa: 71 43 45
ESKORIATZA

pertsonal bat izan da. Hasieran urrun ikusten genuen helburua, beteta ikusi dugu. Jarritako gogoia eta ilusioa haundiak izan dira eta esfortzuak merezi izan du. Egia esan guk ere asko ikasi dugu eta ez bakarrik UDAREN inguruan, Aretxabaletako historiaren inguruan ere bai.

Ordenatutako bilduma eta historia idatzia jasotzen duen liburua da. Alde horretatik lan serioa egin dugula uste dugu. Federazioak laguntza haundia eman digu, datu asko bertatik atera eta kontrastatu baititugu.

• **Aretxabaletako historiaren parte ere bada liburua hein haundi batean...**

Bai, Aretxabaletako azken 50 urteak hobeto ulertzen lagunduko du liburua. UDA elkartearekin gauza asko lotu baitira historian zehar. Bere sorreran garrantzi haundia zuen, herriko jende guztia mugitzen zen elkartearen inguruan.

“Guretzat erronka pertsonal bat izan da liburua egitearena”

• **50 urte luzetako historia idatziak izango du zeresanik etorkizunerako?**

Gaur egungo gazteek liburua ikusi eta irakurriko dute. Gazte horiek UDAREN historian parte hartzeko aukera izango dute datozen urteetan, lehendakari berriak, kirolari berriak... historia honen jarrai-

penean parte hartzeko aukera izango dute.

• **Nola finantziatu da liburua?**

Hasieran baten finantziazioarena ardura bat zen. Gure ideia, 50. urteurrenerako sortutako batzordean komentatu genuen eta finantziazioaren kargu egingo zirela adierazi ziguten. Alde horretatik, finantziazioaren ardura desagertu egin zen guretako.

• **Abenduaren 15ean liburua aurkezpena egingo da. Zenbat liburu argitaratuko dituzue eta non erosi ahal izango da liburua?**

1000 liburu argitaratuko dira eta prezioa ere 1000 pezetatakoa izango da. Liburua, aurkezpena egin ostean erosteko aukera egongo da ZARAIA zineman eta baita LORAMENDI ELKARTEKO liburu azokan ere.

Liburua gabonetan norbaiti opari bat egiteko aukera ona izango da eta alde horretatik garai egokian kale-ratu dela uste dugu.

UDAKO 50. URTEURRENEKO EKITALDI NAGUSIA

Urte guztian zehar makina bat ekintza antolatu dira UDAKO 50. URTEURRENAREN barruan, kirol bakoitzak bere tarteia izan du. Baina urtearen azkenetara iritsi gara eta 50. URTEURRENAREN EKITALDI NAGUSIA ABENDUAREN 15EAN EGINGO DA.

Egun honetan, goizeko 10etan Diana izango dugu Aretxabaletako txistulariekin. 10,30etan udaletxean harrera egingo zaie gonbidatuei eta ondoren txistularien laguntzarekin elizara abiatuko dira guztiak. Meza nagusia 11etan izango da Aretxabaletako abesbatzak lagunduta.

Eguerdiko 12etan 50. URTEURRENAREN EKITALDI NAGUSIA HASIKO DA ZARAIA ZINEMAN. UDAKO LEHENDAKARIAREN AGURRAREN OSTEAN “UDAK 50 URTE” LIBURUAREN AUKEZPENA EGINGO DA. Ondoren insignia eta

oroigarrien banaketa egingo da.

Ekitaldia agurtu ondoren bazkaria izango da Taberna Berri jatetxean. Joan gura duenak abenduaren 12a baino lehen txartela erosi dezake Taberna Berri jatetxean. Prezioa 3000 pezetatakoa da.

Andoni Zubizarretari urrezko insignia

Abenduaren 24an Andoni Zubizarretari omenaldia egingo zaio preferente mailako UDA eta Mondra taldeen arteko derbian. Partidua abenduaren 22an jokatu behar bazen ere gabon egunera atzeratu da. Omenaldi honetara Javier Clemente selezionatzailea ere etorriko da seguruenik. Derbian urrezko insignia jasoko du Andoni Zubizarretak UDA kirol elkar-tearen eskutik.



MAPFRE

Aseguroak

Errekararren, 3
Tfnoa: 77 11 76

**OSKAR
GARAJEA**

Basabe Poligonoa, A-2-4
Tfnoa: 79 98 74
ARETXABALETA

**BENGOA
URDAITEGIA**

Bertako okelak eta
mortzilak

Durana, 9
Tfnoa: 79 19 79

ARGAZKIAK

UrKiola

Tfnoa: 79 39 20
ARETXABALETA

Zinea

Abenduak 6, 8, 9

MISION IMPOSIBLE

Abenduak 8 (umeentzat)

UNA FOCA EN MI CASA

Abenduak 13, 14, 15, 16

TWISTER

Abenduak 15 (umeentzat)

EL REGRESO DE LASSIE

Ordutegia:

Eguakotxa-zapatua: 10,15

Domeka: 5etan (Umeen sesioa)

7,30

10,15

Astlehena: 10,15

Oharra: Abenduaren 7an zapatuan ez da zinerik egongo Atzeratuen aldeko jaialdia dela eta.



MISION IMPOSIBLE

EEBB 1996

AKTOREAK: Tom Cruise, Jon Voight, Emmanuelle Beart, Jena Reno, Kristin Scott-thomas, Vanessa Redgrave.

ZUZENDARIA: Brian de Palma.

Misión Imposible

Ipar Ameriketako espia talde bat, euren misio zailenaren aurrean dago. Errusiar agente ohi batek nazioarteko merkatu beltzean sekretuak saltzen dituen hasten da guztia. Guzti horren atzetik munduko espia nagusienen lista bat mugitzen da, eta tartean agente gaizto batek alde bati zein besteari zerbitzatuko dio. Garbi dago Tom Cruisek zuzentzen duen taldearentzat ez dela batere momentu egokia.

“Misión Imposible”ko casting-a gaur egun daudenen artean onenarikoa da. Aktore haundiak hartzen dute parte bertan, gehienak europarrak.

Jean Reno frantsesa, Kristin Scott-Thomas, Vanessa Redgrave, Emmanuelle Beart... dira pelikula honetan ikusi daitezkeen aktoreak.

Pelikula Pragan, Londresen eta azken honetako Pinewood estudioetan grabatu zen.

TWISTER

EEBB 1996

AKTOREAK: Helen Hunt (Jo Arding), Bill Paxton (Bill Harding), Cary Elwes (Jonas Miller Dr.), Jami Gertz (Melissa), Lois Smith (Meg).

ZUZENDARIA: Jan De Bont.

Twister

Tornado bortiz batek nekazari bat irentsi egiten du, honen alaba eta emaztearen begien aurrean. Denbora pasatzen den heinean aita galdu zuen neskatila emakume heldua bihurtu da, tornadoak ikertuko dituen zientzilaria hain zuzen ere. Jok eta bere zientzilari taldeak tornadoen kanpo eta barnekaldea aztertzen duen makina asmatu dute. Eta hortan datza pelikula.

“Twister” pelikulak “Parque Jurásico”k luzatu nahi digun mezu bera luzatzen digu: gizakiak ezin du natura menperatu.

Pelikula sinplea da, denborapasa atsegina eta ikusgarria. Efektu berezietan oinarritzen da bere ikusgarritasuna baina kalitate artistiko txikia du.



Zubia

Oinetakoak

Poltsak • zapatak • gerrikoak

Mitarte 14 • ☎ 79 16 00 ARETXABAETA
Biteri 1 • ☎ 79 66 53 ARRASATE



Mitarte 9 • Aretxabaeta • Tfnoa: 79 92 01

Txerri hiltzea,

oraindik ere gure artean

Orain urte batzuk baserri gehienetan hazten eta gizentzen zen txerri bat edo beste. Sei, zortzi bat hilabetetan hazten utzi eta azarotik martxorarte bitartean hiltzen zen, hilberan normalean, txerria hobeto kontserbatzeko. Txerri hilketan familia guztiak hartzen zuen parte. Egun berezia zen eta etxeko denak desietan egoten ziren egun hori heltzeko.

Esaera zaharrak dioen moduan, "ezkontzako lehen urtea eta txerria hiltzen den astea dira onenak.

Gaur egun oraindik ere baserri askotan hiltzen da txerria baina aldaketa asko izan dira. Garai bateko ohituretara bueltatzen bagara, goizeko 5etan jaiki eta kafea gailatekin armozatu ostean ekiten zitzaion txerri hiltze lanari. Txerria hil ostean egun osoa zegoen lana lasai egiteko. Jakina, gaur baino lan gehiago zegoen, esteak garbitu...

Gauerako justu bukatzen ziren lanak, txerri afari (Bizkaian txerri boda) batez egunari amaiera emateko. Egun horretako afaria

berezia zen, hildako txerriaren odolaz egindako odolosteak, solomo eta gibelak osatzen zuten mahai gainekoa beste janari batzuen artean.

Egun horretako lanaren ordaina zen hau, ondo merezitako ordaina.

Txerria hil ostean, inguruko baserri eta senitartekoei banatzeko ohitura zegoen. Abadeari banatzen zitzaion txerrikoa lehenengo, gibel, solomo, bara eta urdai zatitxo bat, hezur batzuekin batera. Honen ostean txerri hiltzaileak eta auzokideek jasotzen zuten partea. Gaur egun txerria senitartekoen artean banatzen da gehienbat.



Txerri hilketa

Hilberan gaude eta inguruko baserrietan hasita daude txerri hiltze lanak. Jesus Mari Urkia, Aretxabaletako auzoetan ibili izan da txerri hiltzen eta aurreko astean hil zuen aurtengo lehenengo txerria. Hemendik aurrera baserri-z-baserri ekin beharko dio lan honi.

Txerri hilketan, txerria odol uztu egiten da. Txerri hiltzailearekin batera, txerria eusten dutenak eta odola batzen dutenak hartzen dute parte lan honetan. Hiltzaileak abila izan behar du, txerriari arteria moztu eta odola uztutzeko. Hori da ikasteko gaxena Jesus Mariren esanetan.

Odola batzen duena, emakumea gehienetan, pertsona aipagarria da. Odola ontzi batean jasotzen duen bitartean eskuz bueltak eman beharko ditu hau ez gogortzeko.

Txerria hil ostean, iriaz erretzen da ilea kendu eta garbitzeko. Gero zabaldu, barrukoak atera eta txerria makila batetik zintzilik jarriko da, hurrengo egunera arte hoztu dadin.

Txerri hiltzaileak txerria zatituko du hil ondorengo egunean eta hauxe izango du baserri horretan azken lana.

Odoloste eta mortzilak

Txerriatik dena aprobetxatzen dela esan ohi da. Lehen esteak garbitu eta mortzilak egiteko erabiltzen ziren, birikiak txorizoak egiteko eta koipeak baserriko olioan ordezkatzen zuen. Ezer ez zen alferrik galtzen.

Gaur egun esteak erosi egiten dira eta garbiketa lan bat aurretzen da horrela. Ia txerri gehiena



Txerria erre ostean, garbitu eta barrukoak ateratzen zaizkio

Txerri hilketa hilberan egiteko ohitura dago txerri okela hobeto kontserbatzeko

txorizoetarako erabiltzen da. Hala ta ere, solomoa eta hirugarre zati bat beti gordetzen da aparte eta batzutan urdaiazpikoa ere bai.

Txerria hil ostean berehala ekiten zaio odoloste eta mortzilak egiteari. Ziurrenik jende gehienak probatuko zituen behin edo behin eta zerez eginak dauden jakitean atzeraka ere egingo zien. Gezurra badirudi ere, odoloste eta mortzilak txerriaren odola dute osagai nagusia. Honez gain, txerriaren koipea, arroza, kipula errea, oreganoa, anisa, kanela eta gatza izaten dute. Mortzilek odolosteek baino arroz gehiago dute eta egosita jaten dira normalean, odolosteak berriz erreta.

AMETS TABERNA

Iparagirre, 4
Tfnoa: 79 01 29
Aretxabaleta

Iber

❁ Paperdenda ❁

Otalora, 2 ■ Tfnoa: 79 79 24
Aretxabaleta

JOSE MARI bodegaia

(Eguneko menua
(Bataioak
(Jaunartzeak

Nafarroa, 6 • Tfnoa: 79 20 45
ARETXABALETA

TXAKOLI

a
b - Pintxoak
e - Kazuelak
r - Pulpo espezialitatea

n Andra Mari Auzunea
Tfnoa: 79 02 25
a ARETXABALETA

Ia txerri gehiena txorizotarako erabiltzen da

Etxeko txorizoa

Gure plato preziatuenetarikoa da baserriko txorizoa. Gaur egun ia txerri osoa txorizotarako erabiltzen da. Makinei esker lehen baino azkarrago egiten dira okela txikitze lanak eta aurrerapen handia da hori.

Zatiketa egin ondoren txorizo masa egingo da, kantitateak neurtutakoak izaten diren arren kontuz ibili behar da, handik edo hemendik larrei edo gutxiegi ez botatzeko. Txerriaren hirugiarrea, urdaia, berakatzia, piper hautsa, piperra, gatza eta ura nahastuko dira masan. Behin txorizoak egin eta gero zintzilik jarriko dira eta 20 bat egunen barruan listo egongo dira. Batzutan hobeagoak eta bestetan eskasagoak irtenten dute txorizoez, pikanteegiak agian edo zozoak baina baserriko txorizoa beti ona.

Odolosteak, mortzilak, solomoa, txorizoa, urdaiazpikoa, sahieskia... moduko jakietaz berba egiten dugunean ahoa ur bihurtzen zaigu. Harategian guztion eskura dauden arren, batzuk oraindik ere badute zortetik etxean hildako txerria jateko. Etxekoa beti izango da naturalagoa eta konfiantzazkoagoa.



Isabel Etxeberria odolosteak egiten

Jesus Mari Urkia gazte
gaztetatik hasi zen txerri hiltze
lanetan



GEMES

- Depilazio definitiboa
- Makilaia
- Kutisaren garbiketa

Durana, 40-2 ☎ 79 99 18
Aretxabaleta

Izozkiteki-Gozotegia IZOZKITEGI

Otalora, 11
Tfnoa: 79 93 58
ARETXABALETA



AZKENA TABERNA

Solohaundi, 8 ☎ 79 74 57

Jubenil, afizionatu eta profesional mailako pelota partiduak jokatu ziren domekan

UDAko 50. urteurrenaren barruan pelotari ere bere tarte eskaini zitzaion pasatu den domekan. Afizionatu eta profesional mailako partiduak jokatu ziren ekitaldi honen barruan baina alde zuzenetik jubenilen partidua



Afizionatuetan Errasti anaiak 22-20 irabazi zuten Muruamendiaraz-Barandiaranen aurka. Partidu guztian zehar bi aldetako indarrak oso parekatuak egon ziren baina azkenean etxeok nagusitu ziren.

ikusteko aukera izan genuen. Hasiera baten partiduak Iturrigorri frontoian jokatu behar ziren baina urak frontoia egoera kaskarrean utzi zuen eta kiroletxean jokatu behar izan ziren.

Afizionatuen eta profesionalen partiduen aurretik jubenil mailako txapelketako finala jokatu zen. Lasagabaster-Lazkano bikoteak, Bartolome-Bengoaren aurka jokatu zuen. Josu Lasagabaster eta Lazkano arrasatearra 22-15 nagusitu ziren.

Eskualde mailako finala abenduaren 24an

Abenduaren 24an eskualde mailako finala jokatu da Aretxabaletako Iturrigorri frontoian. 9 urtetatik hasi eta infantiletara bitartean bost final jokatu dira. Oñati, Antzuola, Bergara, Arrasate eta Elgeta dira final honetan parte hartuko duten herriak.



Profesionaletan Zabala-Bazeta, Goñi II-Mendia izan genituen aurrez aurre. Partidua Goñi II-Mendiaren aldekoa izan zen 22-17.

Lau pelotariak Asegarce barruan daude eta 2. mailako profesionalak ditugu.

Jauregi
Okindegia

Otalora, 10
Aretxabaleta

URBALTZ
TABERNA

Mitarte, 21 behea
Tfnoa.: 79 79 79
ARETXABALETA

ARBULO
HARATEGIA

Santa Kurtz, 5
Tfnoa: 79 02 24
ARETXABALETA

Asier Guenetxeak txirrindularitza utzi du

Ezustean harrapatu gaitu berriak baina Asier Guenetxeak txirrindularitza utzi du eta fabrikan hasi da lanean.


Aspalditik pentsatuta bazuen ere, azaroaren 24an eman zion jakitera Madariaga Euskadi taldeko lehendakariari.

Bi arrazoik lagundu dute erabakia hartzera: alde batetik txirrindularitzan etorkizun latza ikusten zuen, ekipo txikiak arazo asko baitituzte. Bestalde, Bergaran zabaldu behar den enpresa berrian lan egiteko aukera eskaini zioten eta buruari buelta asko eman ondoren txirrindularitza uztea erabaki du.

Bost urte egin ditu Asierrek profesionaletan: 3 Artiachen eta 2 Euskadi taldean. Datorren urterako ere Euskadi taldeaz kontratua beste urtebetez luzatzeko berba eginda zuen.

Bi lanbideak guztiz desberdinak dira. Lanbide berrian 15 egun besterik ez ditu egin baina momentuz oso gustora dagoela azaldu digu eta denbora libre gehiago ere baduela.

Zorte ona opa diogu lanbide berrian.



UDA goiko postuetan preferente mailan



Datorren partidua Oiartzunen kontra jokatu du UDAk Ibarra futbol zelaian

Goiko postuetan dabil UDAko Preferenteko taldea. Aurreko partiduan Beti Gazte taldearen aurka berdinketa lortu zuen kanpoan eta momentu honetan laugarren postuan dago 23 punturekin. Klasifikazioan aurrean dauden taldeen artean diferentziak txikiak dira eta postuz samur aldatzen dira.

Gabon aurretik beste hiru partidu gelditzen dira oraindik jokatzeko eta oraindik ere emaitza hobetzeko eta gorago igotzeko aukera ona dute Victor Mujikaren mutilek.

Hurrengo partidua etxean jokatu dute eta Oiartzun izango dute aurrez-aurre. Partidua datorren domekan izango da arratsaldeko 4,30etan.

Hurrengo partidua Lazkaon izango da abenduaren 14an eta azkena berriz abenduaren 24an Mondraren aurkako derbia.

EXPRESS AKEITEGIA

Santa Kurtz, 16
Tfnoa: 79 23 43

INDUSTRIA
HORNIKUNTZAK



Mitarte, 23 Aretxabaleta
Tfnoa: 79 96 66
Fax: 77 10 33

IBARRA ESTANKOA

Tabakoa eta ikasmateriala
Bizkaia, 3 Tfnoa: 79 23 77

LASA AGUILERA

Aholkularitza

Andra Mari Auzunea, 3
☎ 79 29 26
ARETXABAleta

SAGASTA

ELEKTRIZITATEA

Elektragailuak
Elektra-instalaketak
Otalora, 14
Tfnoa: 79 16 10



Lurrindegia
Opari-denda
Mitarte, 18 ☎ 79 38 59

• Bixente Etxeandia •

Bizitza guztia futbolean

Hiru urte daramatza Bixente Etxeandiak UDako lehendakari lanetan. Gazte-gazte-tandik futbolaren inguruan mugitu da Bixenteren bizitza. Denetik probatu du, UDako jokalaria, entrenatzaile, batzordekoa eta orain lehendakaria dugu.

UDako 50. urteurren honetan bere bizitza guztia futbolean eman duen gizon honen iritzi eta asmoak jakin gura izan ditugu.



“Oinarririk hasten den estruktura finko bat lortu da futbolean eta hori oso positiboa dela uste dut”

Entrenatzaile lana ere polita da, poz haundia hartzen da partiduak irabazten direnean. Lehendakari lana berriz, gaur egun moduko batzordekideekin ondo eramaten da.

• Egia da UDak izan dituen 3 futbol zelaien inauguraketan parte hartu duzula?

Bai. Mutikotan Bedarretako futbol zelaia inauguratu zenean Atleticekin jolasteko aukera izan nuen. Ibarreako inauguratu zenean Alavesa etorri zen eta nik Alavesean jolasten nuen orduan. Azkenengoan lehendakari izatea tokatu zait.

• Futbolak afizioa

galdu duela uste duzu Aretxabaletan?

Taldea zela dabilen jendea ere hala etortzen da partiduetara. Taldea ondo badoa jende gehiago eta bestela gutxiago. Bestalde, nik uste dut futbola momentu onean dagoela. Lehen ez moduan, estruktura finkatu bat lortu dugu. Futbol taldeak behetik hasten dira infantiletatik eta eskalak Preferenteraino jarraitzen du. Hori oso positiboa dela uste dut eta horrela jarraitzea gustatuko litzaziguke.

Futbola oinarririk hasten da eta UDA eta Almenen artean koordinatzen da.

• Instalakuntza berriekin konforme?

Bai, oso gustora eta pozik gaude. Azkenengo ikutuak egitea gelditzen da baina beste guztia oso ondo gelditu da, aldagelak, futbol zelaia... ezin gara kexatu.

• Noiz arte jarraitzea pentsatzen duzu?

Niregatik 2001. urterarte, beste menderarte. Horrelako direktiba onarekin gustora jarraituko nuke.

• Futboleko jokalaria, entrenatzaile eta orain lehendakari zaitugu. Nola gogoratzen duzu etapa bakoitza?

Jokalaria etapa da guztietatik politena. Hasiera baten 4 urte egin nituen UDAn. Lehenengo mailan ibilia naiz, Alaves, Granada eta Errealean. Bigarren mailan, Alaves Huelva eta Sestaon. Mirandes eta Vitoria taldeetan hirugarren mailan.

IRIARTE

**Umeen
denda**



Durana, 8 Aretxabaleta
Tfnoa: 79 10 96

MEMESA S.L.

Industriaren alde

Santa Kurtz, 25-27
Tfnoa: 77 11 75
ARETXABALETA

Mitartegarai
Jatetxea

• Nekazalturismo etxea
• Bertako sukaldaritza

Arientza auzoa • Tfnoa: 79 17 51
ARETXABALETA

BITXITEGIA

MIREN & ZURIÑE
BITXIEN DISEINUA

BITXIEN-KONPONKETA
Otalora kalea
Eliza aurrealdean
Tfnoa: 77 13 57



Besperen ostean futbolera

Goiko argazkian Bedarretako futbol zelaia ikus dezakezue, UDAk izan zuen lehenengo futbol zelaia hain zuzen ere. Herria benetan poztu zen Bedarretako futbol zelaia egin zenean, horrela ez baitzuten futbola ikustera Arrasatera joan beharrik. Argazkian ikusi daitekeen moduan jende asko batzen zen orduko futbol partiduetan. Herrian beste ezer ez zegoen eta bespera ostean denak takarraran joaten ziren partidura, baita abareak ere, argazkian ikusi besterik ez dago.

Argazkian agertzen diren batzuk: **Ana Mari Etxabe, Fermina Gabilondo, Francisco San Migel, Katalina Alzola, Jesus Alberdi, Juanito Azkoaga, Don Angel abarea, Don Simon Alzola Arientzako erretorea, Mari Bergaretxe, Ramon Arrue, Juanita Etxebarrieta, Mertxe Bengoa.**

LEIBAR
ARRAINDEGIA



Mitarte Kalea, 1 - Tfnoa: 77 13 79
ARETXABALETA



HAIZEA
AKEITEGIA

Mitarte kalea, Z/G
Tfnoa: 79 85 57

Itxo beharrean



M.J. Aretxaga

Halaxe aurkitzen gara momentu honetan Atxabaltan. Eta ez gabonak datozelako eta kriston krisia dagoelako, euria gelditu barik delako baino. Goizero jaikitzerakoan leihotik begiratu eta gauza bera: euria.

Edarto egongo ginatete orain beste nonbait. Hori pentsatuko zuten **Imanol Aizpuruak**, kulturako zinegotziak, eta **Arritxu Olidenek**. Hilaren 7an ezkondu eta Caribe aldera joango dira ezkon bidaian. Gustora joango nintzen ni ere.

Plaia eta kosta kontuekin jarraituz, barkamena eskatu behar dut aurrekoan **Luis Orruño** Zarautzera zihoala esan nuelako. Baina hori baino urrutiago doa, Hondarrabira hain zuzen

ere.

Gabon giroa somatzen da eta urtero moduan gabon egunean Olentzero hemen izango dugu. Baina ez da bakarrik etorriko, berarekin batera hemen izango dira **Andoni Zubizarreta** eta **Javier Clemente** ere bai. Andoni zubizarretari UDAk urrezko insignia emango dio.

Kirol kontuekin jarraituz, **Asier Guenetxeak**, beste lan bat topatu du eta txirrindularitza utzi du. Orain agian bizikletan joango da lanera.

Atzo, hirugarren munduari buruzko mahai ingurua egin zen Monterronen eta **Aitor Antxiak** hartu zuen parte. Udan Colombian egon da eta bertako esperientzia kontatu zuen.

Kurtzebarri eskolakoak Bilbo aldean egon dira, baina ez ikasten, erakusten baino. Bertan Kurtzebarri eskolako metodologiari buruzko azalpen praktikoa erakustera eman dute. Kurtzebarritik, **Lurdes Etxebarria**, **Eli Arenaza** eta **Imanol Aginagalde** joan ziren. Ea Luis Fernandezek ez diren beste metodologia batzuk ere ikasten dituzten.

Eta banoa berriro, euria da eta erropak sartu behar ditut.




Marrazkiak: Mikel Arroiabe

loramendi
euskerakartea



FELIX PAGALDAI

"Mendia dut gogoko, gaztetan Pirineo aldean asko ibilitakoa naiz"



Orain 30 urte hasi zen Felix Pagaldai dendan lanean. Aldaketa asko izan ditu dendak ordutik gehienbat saltzeko produktuetan. Gaur egun baserriko produktuak eta tresnak saltzen ditu gehienbat, pentsua, patatak, haziak... Gustoko lana duen arren dendan ordu asko sartzen dituela dio Felixek.

• Zein lanegatik aldatuko zenuke zure lana?

Oraingo lana gustoko dut baina denbora gehiago izanez gero hobeto. Bestalde baserri batean bizi ezkererok fruita arbolak landatuko nituzke.

• Zein pentsu mota saltzen da gehien?

Behiena eta oiloena.

• Denbora librean zer egiten duzu?

Mendira joaten naiz.

• Zein mendi duzu gogoko?

Hemen inguruan, Degurixa, Kurtzebarri, Txindoki... Lehen Pirineotara ere askotan joanda nago eta mendi asko igo ditut bertan, Aneto...

• Egin dizuten oparirik politena?

Andreak bi alabak ekarri zituenean.

• Olentzerori zer eskatuko diozu?

Osasuna.

• Zein fruta duzu gogoko?

Melokotoia eta reineta sagarra.

• Errealala ala Atletika?

Errealala.

• Zer gustatzen zaizu gabonetatik?

Familia elkartzea.

• Gaur egungo gizartearen zer aldatuko zenuke?

Bakea egotea gustatuko litzaidake.

• Gustoko abeslari bat.

Benito Lertxundi eta Pantxoia eta Peio.

• Intsumisioaren inguruan zer duzu esateko?

Intsumisioaren aldekoa naiz, baina gura duenak egin dezala soldaduzka.

• Kalkuloak kalkuladoraz ala eskuz?

Eskuz ere ondo moldatzen naiz baina poliki-poliki kalkuladora ere gero eta gehiago erabiltzen dut.

• Etxean zein lan egiten duzu?


Etxean lan gutxi egiten dut dendatik berandu irtetzen dut eta.

• Mendiaz gain zein beste afizio duzu?

Pelota, futbola eta irakurtzea ere asko gustatzen zait.



Irakurtzeko liburuak



Titulua:

Secretos que matan

Idazlea:

Vicenc Fisas

Argitaletxea:

Icaria, 1995

(Más madera; 5)


Liburu honetan mundu mailako armamentuen komertzioari buruzko ikerketa bat egiten da eta bereziki Espainiako armamentu komertzioari buruzkoa. Bertan, giza eskubideak oraindik hala jarraitzen duela salatzen da, behar den moduko kontrol bat ez dagoelako (armen komertzioa gehienetan sekretua izaten baita).

Armamentuen komertzioari buruzko informazioa emateaz gain giza eskubideen zapalketaren ikerketa bat ere egiten da Amnistia Internacionalek emandako datuetan oinarrituz.

Liburu hau gainera Amnistia Internacional, Greenpeace, Intermon eta Médicos sin Fronteras-ek bultzaturiko kanpaina baten barruan buruturiko ekintza da, espainiar Gobernuari armen komertzioan gardentasuna edo transparentzia eskatuz.

Zaireko gatazka eta NATO-n integrazioa dela medio, azken aldirian antimilitarismoaren kontua berriz ere bizi bizi dagoen honetan liburu honen irakurketa interesgarria dela iruditzen zait, antimilitarismoa, soldaduzkari uko egitea baino askoz gehiago ere badela kontutan hartzeko.

✍ Joseba Lopez de Armentia



ARGI-PLASTIC

Leihoak egiten dira

Zigarrola, 1 8. pabiloia
ARRASATE Tfnoa: 77 11 30



BASTER-ALDE JATETXEA

SASOIKO JAKIAK
GIRO ONENEAN

Galartza auzoa Tfnoa: 79 24 58 ARETXABALETA

ARRASATE



Abenduak 4-8

IV. NAZIOARTEKO AKORDEOI LEHIAKETA

Amaia antzokian, goizeko 10etatik 6ak bitartean.

Abenduak 14 zapatua

TXIRRI, MIRRI ETA TXIRIBITON

Amaia antzokian, 4retan eta 6retan.

Abenduak 20 eguakotxa

BENITO LERTXUNDI

Amaia antzokian.

Abenduak 22 domeka

SANTAMASAK

Santamasak 96 argazki lehiaketa egongo da.



IV. NAZIOARTEKO AKORDEOI LEHIAKETA

Abenduaren 4tik 8ra bitartean

BERGARA



Abenduak 14

KONTZERTUA

Plotr Klemenski-ren organo kontzertua. San Pedro parrokian.

Abenduak 13-29

ERAKUSKETA

Bergarako margolarien erakusketa kultur etxean.

OÑATI



Abenduak 13

ORGANU KONTZERTUA

Organu kontzertua **Koro Saenzen** eskufik. Parrokian arratsaldeko 7,30etan.

ARETXAZOKA

LANA

• Neska euskalduna behar da taberna lanetarako. (945) 44 50 86.

• Klinika laguntzaileak (errezidentzian lanean diharduenak) zaharrak zainduko lituzke etxean edo eritetxean arratsaldez edo gauez. Tfnoa: 76 46 14 edo 77 02 13 (Pili).

• Industrialdean (B-3) kokatzen den Robber Lan S. Coop-ek jendea behar du lanerako. FP2 edo antzekoa eskatzen da eta gehienez orain 3 urte ikasketak bukatuta izatea. 16 ordu asteen. Interesatuok bertara azaldu.

ETXEBIZITZA

• Pisu salgai dago Durana kaleko 33. zenbakian (3. solairua eskuma). Telefonoa 79 64 93. (Eguerdian eta arratsaldean).

• Garaje bat salgai dago Errekabarrenen. Interesatuta zaudetenok deitu 79 69 61 telefonora. (Arratsaldeko 8etatik 10etara bitartean).

• Aretxabaletan lokal konpartitua salgai. Tfnoa: 79 46 20.

• Garaje bat behar dut Portasolen. Telefonoa: 77 00 62.

BESTELAKOAK

• Azaroaren 4an erlojua galdu nuen Almenetik Aretxabaletara bidean. Korrea berdea du eta hosto batzuk ditu esferan. Telefonoa: 79 85 74.

• Seat Ronda SS-U salgai: 1460 cm³ eta 75 CVkoa egoera onean. 100.000 pezeta. Tfnoa: 79 15 96.

• Neska frantsesa klase partikularrak emateko prest Bergaran. Estefaniaz galdetu. Tfnoa: 76 27 16 goizeko 9etatik 11ak arte.

Orrialde honetako iragarkiak dohainik dira. Testua idatzi eta bidali kultur etxean dagoen buzoira edo 151 postakutxatilara edo eta deitu 79 01 05 telefonora.



Abenduak 4, 5, 6, 7

JOSTAILUEN ERAKUSKETA

Aretxabaletako ludotekak antolatuta jostailuen erakusketa egongo da Loramendiren lokalean. Abenduaren 4 eta 5ean arratsaldeko 4,30etatik 6,30etara eta abenduaren 6 eta 7an eguerdiko 12etatik ordu 2etara.

Abenduak 7 zapatua

ANTZERKIA

ARATZ, Atzeratuen Aldeko Elkarteak antolatuta **"El florido pensil"** antzerkia (Eskola nazional katolikoaren oroimena). Gaueko 10etan Zاراia zineman. Sarrera 1000 pezeta. Antzezleak: **K. Diaz de Rada, P. Sagarazu, M. Garmendia, Z. Egileor, J.R. Soroz.**



Abenduak 1-15

PINTURA ERAKUSKETA

Kontxita Arana arrasatearraren pintura lanak (oleoa) ikusgai izango dira Aretxabaletako batzokian.

Abenduak 8-31

ESKAPARATE LEHIAKETA

Aretxabaletako kultura sailak antolatuta.

Abenduak 11 eguaztena

MAHAI INGURUA

HIESAREN INGURUKO MAHAI INGURUA arratsaldeko 7etan Loramendiren Elkarteak.

Aretxabaletako Gizarte Zerbitzuak antolatuta.

Abenduak 14, 15

SANTA LUCIA JAIK GALARTZA AUZOAN

Abenduak 15 domeka

UDAKO 50. URTEURRENAREN EKITALDI NAGUSIA

Goizeko 10etan diana herriko txistulariekin. 10,30etan Aretxabaletako udaletxean gonbidatuei harrera. 11etan meza nagusia Aretxabaletako abesbatzarekin. 12etan ekitaldi nagusia Zاراia zineman. Bertan Udako lehendakariaren agurra, UDAK 50 urte liburuaren auzoketaren, insignia eta oroigarrien banaketa, Federakuntzako lehendakariaren eta alkatearen agurra. Eguerdiko ordu bi terdietan herri bazkaria Taberna Berri jatetxean.

KALE ANTZERKIA

"SOO BITXO" antzezlan antzetuko dute **TUNANTES DEL NORTE TALDEKOEK**. Arratsaldeko 7etan plazan edo Iturrigorri frontoian. Aretxabaletako gizarte zerbitzuak antolatuta.



BEHARREZKO TELEFONOAK

Aretxabaleta

- Udal Bulegoak 79 10 00
- Udaltzaingoa 79 10 52
- Euskaltegia 79 21 68
- Postetxea 79 28 31
- Kultur-Etxea 79 01 05
- Gizarte-Laguntzailea 79 10 00
- Kiroletxea 79 64 61
- Parrokia (Bulegoa) 79 18 42
- Basotxo 77 09 81
- Urats Gain 79 99 11
- Osasun zentroa 79 74 58
- Hezibide Elkarteak 79 31 32
- Industrialdea 79 62 80
- Liburutegia 79 10 00
- Taxi Geltokia 79 22 33
- Loramendi K.E. 77 0970
- Murruxio M.E. 79 93 74
- Leniz Lanbide Esk. 79 79 00
- Kurtzebarri Eskola 79 00 49
- Pausoka Haur-Esk. 77 03 77
- Santa Rita Ikastetxea 79 17 00
- ALMEN 71 49 64
- Otalora 79 79 99
- Ludoteka 79 05 81
- Musika Eskola 79 36 50
- Ortzadar 79 01 84
- Aretxagazeta 79 01 05

Udaltzaingoa

- Arrasate 79 14 39
- Bergara 77 91 06
- Eskoriatza 71 44 07
- Oñati 78 04 11

Denetarik

- Eskualde-Ospitala (Arrasate) 79 53 00
- Gurutze-Gorria (Bergara) 76 55 76
- Ertzaintza (Arrasate) 79 71 99
- Suhiltzaileak (Oñati) 79 28 00
- Renfe (Zumarraga) 72 15 15
- Renfe (Gasteiz) 23 20 30
- Pesa (Arrasate) 79 14 19
- Larrialdiak (Arrasate) 77 10 43
- SOS Deiak 088

CONSUM EROSKI

BETI ZURE ZERBITZURA

Durana, 8
Tfnoa: 79 19 34

Aralar z/g
Tfnoa: 79 16 05

ARETXABALETA



Basabe Poligonoa A-15
79 34 28

ARETXABALETA

J.J

ITURGINTZA

Tfnoa: 79 07 34/ 79 31 87

Etor zaitez SOFA LEKŪra eta...



aukera ezazu

"EROSOTASUNAREN"

500 modelo artean



"Eroso eseri zaitez"



**Sofa
leku**

Zigarrola,1 • ARRASATE • Tel. 77 14 92



Amuebladora
Mondragonesa

Zigarrola,1 • ARRASATE • Tel. 77 14 92



a, eme... interiores

Garibai,9 • ARRASATE • Tel. 79 15 03